

Mintzanet, euskara doan praktikatzeko aukera Internetez edo APP bidez

RITXI LIZARTZA

PROIEKTUAREN ZUZENDARIA

Mintzanet proiektuaren helburua euskara praktikatzeko aukera ematea da, edozein arrazoi dela eta, aurrez aurre aritu ezin den edonori: euskara praktikatu nahi duen pertsonak bere ingurunean euskaraz egiten duen jenderik ez duelako, gaixorik dagoelako, mugitzeko arazoak dituelako, lan-ordutegiagatik beste aukerarik ez duelako, atzerrian bizi delako eta ez duelako euskara galdu nahi, norbait zaintzen lan egin eta denbora libreduela duelako.



Horretarako ez da gauza handirik behar: Interneteko konexioa eta ordenagailua edo telefono mugikorra. Hala, www.mintzanet.net webgunean sartu eta aukeratu egin beharko du **bidelagun** (praktikatu nahi duen edonori laguntzeko prest dagoena) edo **bidelari** (praktikatu nahi duena) izan nahi duen, zer egun eta zer ordutegi duen egokia, zer gai edo zaleztasun dituen, zer maiztasun nahi duen, adina... Datuok jasotakoan, konfirmazio maila jasoko du interesatuak, bere ezaugarrien arabera solaskidea jarriko diogu, eta praktikatzen hasi besterik ez dauka.

Dagoeneko 600 bat lagunek eman dute izena, eta une honetan 300 bat ari dira, bakoitza bere gustuko maiztasunaren arabera, euskara praktikatzen.

Zailena, noski, besteek praktikatzeko aukera izan dezaten beren denbora eskaini nahi duten **bidelagunak** edo **laguntzaileak** topatzea da, eta, aurkezpen honen bidez, jarduera honetan parte hartzeko gonbita egin nahi dizuegu. Izan ere, orain arte askoz jende gehiagok eman du izena praktikatzeko, laguntzen aritzeko baino.

Mintzanet proiektuak ez dauka helburu didaktikorik. Aurrez aurreko Mintzlaguna proiektuan bezalaxe, helburua praktika librea da, eta, beraz, ez dago irakasle-ikasle harremanik, tertulia moduko elkarriketa bat da haria. Bi lagun artean egin ohi da: laguntzailea eta praktika egin nahi duena.

Gure lanak hiru arlo nagusi ditu: proiektua dinamizatzea, izen ematen duten bidelariak eta bidelagunak koordinatu eta ahalik eta zerbitzurik onena ematea, eta proiektua bideragarri egiteko hitzarmenak eta babesak adostea.

2014ko Euskararen Egunean bi urte beteko ditu **Mintzanet** proiektuak. Maramara taldeak kudeatzen du proiektua eta Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udaren babesa dauka. Akordioak eta hitzarmenak sinatu ditugu era guztietako erakundeekin, proiektuari babesa eman eta nor berean sustatu dezan: Etxepare Institutua, EHU, Eusko Ikaskuntza, Topagunea, AEK, Bagera, KZ Guneak, Kutxa eta abar. ■